

GUTUNAK

HANDIK ETA HEMENDIK

K

Mila esker Oñatiko herritari eta beste askori!

JERARNO ELORTZA
ONAI

Ez dakit nondik hasi. Txundituta utzi nauzue. Duela bi hilabete paseatxo, omenadarian asmoa jakinarazi zendatenean ere, hitzik gabe, berba barik geratu nintzen. Eta orain, aste luze, oparo eta hunkigari hau igaro ondoren, zer esan erakutsi didazuen adiskidetasuna eta maitasuna eskertzeko? Ekintuhan eta sekretuan antolatatu duzue urtebetan zehar, dirudinez, nire meritu apalak gorapatzeko *asmazitza* eder hau. Dozenaka pertsona, talde eta erakunde implikatu duzue amets polit hau gauzatzeko. Ez duzue lan makala hartu!

Ez nuen uste herritar eta inguruetan hain maitatu eta estimatuta nintzenik. Izan ere, nik, gehienok bezala, akatsak, gabeziak eta faltsak baitituz, eta ez gutxi. Ondotxo konturatzan naz. Ez dut horiek aitortzeko eragozpenik eta norbait kalte egin badiot barkamena eskatzeko. Baina horietatik alde batera lagata, nire alderdirik omenak hartu dituzue kontuan. Ezin dizuet egoki adierazi zer-nolako poza barnerratu didazuen zuek, antolatzaileek eta, aldeez edo moldez, omenaldian parte hartu duzuen guztiok. Ilxura batean, kargu bat izan da nirezat, baina zama arin eta atsegina. Ni apur bat gazteago sentitza lortu duzue.

Berriz, denoi eskerrik beroenak ematea besterik ez zait geltitzen. Ez noa izenik alpatzera, zerrenda luzeegia osatuko lukeelako eta hartarako orrialde osoa behariko nuke eta. Guztiok zaituztet gogoa: sende, adiskide, herritar, alkarre, erakunde, komunikabide eta bestelakoak. Oñatikoak, Debagoienekoak eta Euskal Herrikoak. Besarkada estu bat den-deno! eta mila-mila esker!

Biziri!

JUKE ZUZUA ETA TXEMA CRESPO
AETXIBALEA

Joan zan larunbata emozioz betetako eguna izan zan, emozioz betetakua eta inoiz ahaztuko ez doguna. Ez dakigu serititu ginnena biher bezala adierazteko gauza izango garen, baina ahaleginduko gara.

Lehenengo gauza poza, poz izugarria Mikelek hainbeste lagun on txiki zituela ikusitan, eta baita harrotsun punitxu bat seme jator eta maitatu bat hazi ginuelako.

Baita pena be, bihotza erdibikeran dauen horietakua, Mikek ez dauelako gure artian. Baina zaparran bizi ginenak argi txiki dugu han alkartu ginen guztion barruan darotiegula bere zaitxo bat, bakortzak bertia, bere bizipen eta orotizpenekin.

Eta esker ona. Ideia euki zinuonendako, antolaketan eta lanien ibili zitzenendako eta baita antolatutako ekintzetan parte hartu zinuena guztiondako.

Maitsun guztiaz egin zinuuelako eta primeran urten zalako. Zorionak! Beretan esaten deutzuegu ez daukagula hitzik egin zinuena eskertzeko. Butaketako, hamar hilabete hauetan gure aldamenari egon zarrionoi be eskerrak emutia gure geuke; batez be, etxekuei, kuadrillakuei eta Mikeken lagunei. Gu babestegaitik, gure ardurak arintzagaitik, zuen denboria eskeintzagaitik, gure makalaldizak errespetezagaitik, gurekin negar egitiagaitik, baina baita errudun seritidu barik barre egitiagaitik be. Bihotz-bihotzez, mila esker.

Errefusa, hondakin artiskutsu bihurtu

JOSU GARIBAYANDIA

'OPARU ZUHATZ BAI' EGINASMOAREN AROLDADUNA BERGARA

Hori egiten du errauskailu batek. Normalizat hartu behar dugu? Zaborteak errefusez beterik daudela argudiatzen dute errauskailuak eraikitzeo. Helduko da eguna hondakin artiskutsuz beteko direla zaborteak; ondorengo belaunaldiak konpon dezatela guk txartu dugun arazoa?

Arhasoengandik datorren San Juan suen ohitura eguneratu behar da, datozen belaunaldiei ikaropena emateko: zabortak ondo kudeatzeko kontzientzia zabaltzeko; ez erosi ezin dena berrirabili, birziklatu eta herri-bakoitzeko San Juan suetan erre. Kontsumo arduratsua!

Huts erretorikoak

JOKIN LABAEN

HTTP://LABUR.EUS/GRALC
'BERRIA' N.ARGITARIATUA

Hutsaz aritu, ari eta artikoa gara. Lehen, orain, eta, ezinbestean, geroa ere. Orduak eta orduak eskaini dizkiogu —igorleek adina hartzaileek— telebistan martxak bizidun bateko pertsonalak dirudien bi handi-mandi horien arteko negoziolari. Eguna iritsita, asper-asper egin gara haien arteko esku ematearen eta irribarre behartuen irudiei begira. Hitzartua zer den, zertarako den, beharrezkoa den, beteko ote den ebazti behar ondoren, adituak balira bezala, bagina bezala.

Marrakzi bizidunetako pertsonaien hitza eta sinadura aintzat hartzeoak dirrelakoan.

Esango dit batek baino gehiagoq baretz, haien mugimendua nik usie baino garrantzitsuagoak dirrela. Ados nago. Baina nonbait irakurri dudana esaera gorduko dut nirezat: astelehenekoa, izatekotan, akordio erretorikoa dela. Hutsa gertuago du, mamia baino. Erretorikoak, beste behin, errealtatea jan du, gure laguntzarekin.

ABEak eta Ipar Korea gutxi ez, eta Errusiara begira jarriko gara gaur gehienok, alzo despistatu eta hala egin ez bagenuen. Ez soilik epuzenthoa Asteasun ere baduen eta espainiarren buruhauste

handi bilakatu den albiste sortegaitik. Bihar hasiko da haurtzaroan poz, arreia eta lusuio iturri zitzaizkidan gizonzukoen futboleko Munduko Kopa. Atzo egunkari honetan irakurri ahal izan genuenez, aurreikuspen arabera, partidek 3.500 milioi ikus-entzule izango dituzte munduan barrera. Ekitaldiak dirua barra-barra mugituko du, osteria. Gurean, Mediaset etxearen kateetan eta TFI katean ikusi ahaliko da.

Mediasetel —heldu gogor— partida denak eskainiko ditu irekian, 64, Tele5, Claro eta Be Mad-en. Erroitzekoa, bai. TFI-en, horietatik 28 ikusi ahaliko dira irekian. Gaihoritzailekoerako, ordaindu egin behariko da. Gehitu ordu kopuru horri saio berezi, albiste, erreportaje, partidaren aurreko eta osteko, eta beste.


Pentsa, erretorikaz ez bada ere, zehat hitz egingo zaigun arinkertez eta epika nahiaz, munduak eta gure buruek baloaren forma dutela aitzakia hartuta. Hutsaren hurrengo bihurtuko dira mamia duten asko eta asko, hilabetez gutxienez.

Ez usie, niri ere ahaztu egingo zait, egun barzuetan, adibidez, hau idazten ari naizela noraezean doan ittasontzi *madarikatuarena*. Nik ere elikatuko dut kontrasesan globala hainbat partidari, irekian, begira. Espainiarenei ere, ziur asko. Ni ere, nola ez, hutsaren parte bainaiiz.

GUTUNAK. Karaktetarak, gehenez 2.000 (inamusek termu), SOBEAK eskatidea du gitarra labortzeko. Gaurak ezan zangozua diru izango diru pertsona batek kopitua erantzun, gura bakorretarako erantzun behar da. Gaurerarik baina biela beharrikok, egileari izana eta zuzena, bertu. Tereiner elektronik, telefonoz eta ortzuan egiten veritate. Gauru herretzeko, bidek. Oliba Utertzadunaz 31. 201801 Artista: /gauruokogauruena.eus

HAUXE BAI JENEROAI

GARBINE UBEDA



JAIOZTA TASA
% 6,5 JAITSI DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

AMA BERRIEN
%80 BAINO GEHIAGO 30 URTETIK GORAKOAK ZIREN

ORAIN ERE, GIZARTE OSOAREN ARAZOA

AURREKO URTEAN BAINO 1.185 LUME GUTXIAGO SORTU ZIREN

GEURE BIZKARREN GAIN